

Bertakoak baino hobeki

ATZERRIKO HAUREN ADOPTZIOA. Kanpotik ekarritako haurrek bertan adoptatutakoek baino gaitz psikologiko eta portaera arazo gutxiago izaten dituztela ondorioztatu dute adituek

EDU LARTZANGUREN - DONOSTIA

Atzerrian adoptaturiko haurrek inguru eta gizarte berrira moldatzeko zailtasunak izaten dituzte eta, ondorioz, gaitz psikologiko eta portaera arazo gehiago. Inork gutxi jartzen zuen hori zalantzan orain arte. Herbehere- eta aditu talde batek egin duen ikerketak, ordea, hankaz gora jarri du topiko zaharra. Izan ere, 50 urteko datuak aztertuta, zera ondorioztatu dute, herrialde urrunetan adoptaturiko haurrak bertan adoptatutakoak baino hobeto moldatzen direla, eta adaptazio arazo gutxiago izaten dituztela.

«Lehenengo urteek ez dute saihestezinezko halabeharrik ezartzen. Hala ere, haur gehienek sendo heltzen diote emaniko aukera berriari»; hala esan zuen joan zen astean Leidengo Unibertsitateko (Herbehereak) Femmie Juffer eta Marinus H. van IJzendoorn irakasleek. Itxaropenerako mezua da, urtero 40.000 haur inguru adoptatzen baitira atzerriko herrialdeetan. IJzendoorn eta Jufferrek 1950. urtetik gaur arte adoptatutako 30.000 lagunena eta guraso biologikoekin hazitako 100.000 lagunena kasuak aztertu zituzten,



IPAR KOREAKO haurtzaindegi bateko umeak. Gero eta Asiako ume gehiago adoptatzen dira hemen. GERALD POURKE/EFE

Europar, AEB Ameriketako Estatu Batuetan, Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian eta Israelen.

Emaitzen arabera, nazioarteko adopzio sistematik igarotako haurrek joera txikiagoa dute portaera bortitza edota antsietatea izateko, edo euren buruak bakartzeko. Horrez gain, bertan adoptaturikoek baino buruko

osasun arazo gutxiago izaten dituzte.

Adopzioaren sekretua lau haizetara

Azken 50 urteotan pertzepzio aldaketa bat izan da adopzioaren inguruan. Lehen, familiek ezkutuaren gordetzen zuten, eta ez zioten ezer kontatzen umeari, hel-

dutasunera iritsi arte. Nazioarteko adopzioak joera hori aldatu du. Gero eta Mendebaldeko familia gehiagok adoptatzen dute umea Asian. Halakoetan, begi bistakoak izaten dira desberdintasun fisikoak, ezkutetzen zaidak. Eta gazte gaztetatik hitz egiten da adopzioaren gaiaz sentidietan. Egileek nabarmendu zuten, atzerrian adoptaturiko

haurren arazo psikologiko larrietaz hedabideek zabaltzen dituzten berri sentsazionalistek eragin dituzte nazioarteko adopzioaren inguruko ideia faltsuak.

Ikerketak nabarmentzen du, edonola ere, kanpotik ekarritako umeek, oro har, gainerako umeek baino arazo gehiago izaten dituztela. Haur horien kasuan, %20 handiagoa da portaera txarra izateko arriskua. Era berean, %10 arrisku handiagoa izaten dute antsietatea izateko edota euren buruak bakartzeko. Guraso biologikoekin hazitako haurrek baino laguntza psikologiko handiagoa behar izaten dute maiz adoptaturiko haurrek. Adituen arabera, bi aldiz arrisku gehiago dute noizbait psikologo eta psikiatreganajoa behar izateko. Herrialdean bertan adoptaturiko haurrek, berriz, %60 arrisku gehiago dute portaera arazoak izateko. Ikerketaren arabera, adinak ez du inolako eraginik horretan, baina bai, ordea, umeak familia berriarekin bizitzen daraman denborak. Ikerketa horren arabera, familia berriarekin 12 urte edo gehiago daramatzaten gazteek arazo gutxiago izaten dituzte normalean.

Europako Batasunetik kanpo jaioak dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan adoptatzen diren lau haurretatik hiru. Gehienak Ekialdeko Europako herrialdeetatik ekarritakoak dira. Ondoren, Hego eta Erdialdeko Amerikatik etorritakoak datoz, Asiatik ekarritakoak gero eta, azkenik, Afrikatik heldutakoak.

MARINUS H. VAN IJZENDOORN ① ADOPTZIOAREN INGURUKO IKERTZAILEA

«Zenbat eta desberdinago izan, hobeto moldatzen da umea»

E.L. - DONOSTIA

Leidengo Unibertsitateko (Herbehereak) Marinus H. van IJzendoorn irakaslea da nazioarteko adopzioaren inguruko txostenaren egilea, Femmie Jufferekin batera. Holokaustotik bizirik ateratakoen seme-alabak ikertu zituen 2003an, eta bigarren traumarik ez zutela ondorioztatu zuen. Harriturik mintzo da, haurren gogoek moldatzeko duten ahalmenaz.

Atzerriko ekarritako haurrak bertan adoptaturikoak baino hobeto moldatzen direla ondorioztatu duzue. Espero al zenuten halakorik?

Ondorioak harritu egin gaitu. Izan ere, beti pentsatu da arraza, kultura eta gizarte ingurune desberdin batean sorturiko haurrek arazo psikologiko eta sozial gehiago izaten dituztela. Harri-

tzeko beste arrazoi bat ere izan dugu, hala ere. Izan ere, ikusgarria da haurrek ingurumen berrietara moldatzeko duten ahalmena. Umeak integratzeko gurasoek duten trebezia ere nabarmentzekoa da.

Atzerrian adoptatutako umeak gaitzatsunak izan ohi diren ustea gezurtatu du zuen ikerketak?

Desberdintasun fisikoek haurren adaptazioa oztopatzen zutela uste zen. Hori gezurra dela ikusi dugu: arraza desberdintasuna zenbat eta nabarmenagoa izan, orduan eta errazago moldatzen dira haurrak ingurune eta kultura berrira. Kasu horietan ez dago sekretua nerabezarora arte ezkutatzetik. Haurrak eta gurasoak desberdintasunaz hitz egitera behartuta daude haurtzaindegitik. Jarrera horrek asko laguntzen

die haurrei euren izaera eraikitzeko orduan.

Horrek bakarrik ez du azaltzen, ordea, zergatik moldatzen diren bertakoak baino hobeto.

Genetika faktoreak ere tartean daude. Bertan adoptaturiko haurrak, normalean, burua nahastuta duten pertsonen seme-alabak izaten dira, edo alkohol edo droga menpekotasuna duten pertsonen seme-alabak izaten dira, edo Txina bezalako lekuetan, ordea, ez dago halakorik. Kultura kontuengatik gertatzen da han familiek mutilak neskak baino nahiago izatea. Haurrok, beraz, ez dute kalte genetikorik izaten.

Edonola ere, bizimodu latza izan dute asko lehen urteetan. Horrek ez die pareko kalterik eragiten?

Bizimodu gogorra izandakoak dira asko: pobrezia, gaixotasuna, malnutrizioa... Eta hala ere,



izugarriko ahalmena dute hori guztia gainditzeko. Guraso berri horien seme-alaba biologikoen mailara heltzen dira, arazorik gabe. Haurrek egoera berrietara moldatzeko duten gaitasuna erakusten du horrek. **Hizkuntza aldaketak zein eragin duen ikertu al duzue?**

Aurtengo beste ikerketa batean aztertu genuen hori. Haurren adimen koefizientea, hizkuntza ahalmena eta eskolan izaniko arazoak behatu genituen eta ez genuen arazo handirik nabaritu alor horietan. Kanpotik ekarritako haurren adimen koefizien-

tea euren anai-arreba berrien parekoa da, eta jatorriko herrialdean utzitakoena baino askoz handiagoa. Hizkuntzarekin ez da arazorik egoten.

Haurrak nondik datozen garrantzitsua al da?

Ez, horrek ez du garrantzirik izaten. Jatorriko herrialdean pairaturiko pobrezia eta malnutrizioa da eragina duen puntu bakarra.

Egoera ekonomiko onean diren gurasoek adoptatzen dituzte haurrak, ia beti. Laguntzen al du horrek adaptazioan?

Jakina. Bi modutan du eragina: alde batetik, hobeto prestatuak daude gurasoek arazoei aurre egiteko. Hobeto dakite, esaterako, informazioa non bilatu. Bestalde, joera handiagoa dute adituengana jotzeko.

Nazioarteko adopzioen kopurua nabarmen hazi da. Zuen ikerketak lagunduko al du fenomeno hori?

Guraso biologikoen ondoan haztea da haurtzaindako onena edo, bestela, euren herrialdean bertan adoptatzea. Hori ezinezkoa bada, nazioarteko adopzioak ematen die haur horiei gartzeko aukerarik hoberena.